



ZALDI URDINA

IGOR ELORTZA eta UNAI ITURRIAGAekin Idatzia
Zuzendaritza: XIMUN FUCHS eta AINARA GURRUTXAGA
Aktoreak: ANDER LIPUS · OLATZ BEOBIDE · URKO R. PESCADOR
MIREN ALCALA · MANEX FUCHS · EDURNE AZKARATE · OIER ZUÑIGA

www.zaldiurdina.eus

AXUT! • ARTEDRAMA • DEJABU

AURKIBIDEA

EKAITZ GOIENETXEA, ZALDI MAMARROA	03
SINOPSISIA	04
ANTZEZLANA	
ABIAPUNTUA: XIMUN FUCHSEN PROPOSAMENA	05
LEHEN HAUSNARKETA ARTISTIKOAK	06
IDAZKERA	06
METODOLOGIA	06
DENBORA-ESPAZIOA	07
BEHAR TEKNIKOAK	08
MEDIAZIOAK	10
LAN TALDEA	12
EGUTEGIA	14
KONTAKTUA	16

EKAITZ GOIENETXEA, ZALDI MAMARROA

- Hemen jada jendea ez da txutatzen, ezta?
- Txutatu ez, baina nerabeen artean berriro ari da zabaltzen; orain txinoetan erretzen dute.
- Zer diozu? Jendea subnormala da ala?! Hemen gertatu zena eta gero?
- Ya te digo. En los otxenta jende askok palmatu zuen.
- Memoria gutxi daukagu antza.

ZALDI MAMARROA
Ekaitz Goienetxea

SINOPSISIA

Euskal Herrian nahikoa da "Zaldi zuria" esatea burura etortzeko heroina eta 1980ko hamarkada. Eta behin buruko errota martxan ipinita, segituan etorriko zaizkigu burura beste hainbat auzi ere: gazteria eta rock musika, askori; hiesa eta heriotza, ez gutxiri; gatazka politikoa eta botereen esku beltza, beste hainbati. Auzia da droga kalean dela, hemen eta orain, bere ertz eta erabilera guztiekin. Eta, tartean, heroina itzuli dela. Hortik izenburu metaforikoa: ZALDI URDINA.

SINOPSISIA

Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da tekno jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa bera delakoan.

Ametz, Aingeruren 22 urteko arreba errebeldea da, gaztetxe eta bizimodu osasuntsu zalea. Ikerketa bat hasiko du, Karmen amona eta Simon udaltzain ohi traketsarekin batera. Aingeru poliziek baino lehenago aurkitu behar dute, eta abokatu on batekin joan epaitegira. Astebeteren barruan, 18 urte bete baino lehen. Atzera kontaketa bat da.

Ikerketa amateurraren bidean gurutzatuko dituzte gazteriaren ondoezak eta ametsak, trafikanteen eta interes ekonomikoen boterea, indar polizialen konplizitatea eta politika baten aztarna.

ANTZEZLANA

ABIAPUNTUA: XIMUN FUCHSEN PROPOSAMENA.

Artedrama, Axut! eta Dejabu Panpin Laborategiak elkarrekin sortu dugun laugarren ikuskizuna "Zaldi Urdina" deitzen dugu. Erreferentzia egiten diogu horrela, zaldi zuria izenez Euskal Herrian hain ezaguna izan den heroinari. Zeren egitate horretatik abiatzen baita ikuskizun honen planteamendua: oso erraz aurkitzen da heroina (eta edozein droga) Euskal Herrian.

Trantsizio garaitik hasi zen heroina Euskal Herriko zazpi kantoietan gazteria inbaditzen. Durango batean, heroinak, gerlako bombardaketak baino hil gehiago eragin ditu. Ikerketa askok trafikoaren iturria Guardia Zibilaren kuarteletara eramaten dute ("A los pies del Caballo"- Justo Arriola- Txalaparta; "Erantzukizun politiko eta poliziala argitu behar da; ez zuten heroina-trafikoa gelditu nahi"- Argia, "Zaldi Mamarroa"- Ekaitz Goienetxea- Elkar; Kalegorrian aldizkaria; Pepe Rei...). Bide horrek suposatzen du borondate argi bat izan dela (eta badaitekeela oraindik) Euskal Herria edozein drogarekin itotzeko, eta ahalaz gazteria eta beraien familiak isolatzeko, itsutzeko edo lurperatzeko. Ameriketako indioak bezala alkoholekin, edo Manchouriako txinatarrak opiumarekin, populu oso bat dependentzian jartzeko plan bat egon dela esan liteke; eta bide batez gerra zikinaren finantzaketa errazteko modu bat.

Baina horrek zer eragin ukan du familietan, lagunartean edo bikote harremanetan? Zer eragin du gazteriaren ametsetan? Zertarako isildu da gertakaria? Zertarako betidanik sentitu da drogaren behar ezinbesteko hau? Miseriatik ihes egiteko? Patua bestelakotzeko? Izarrekin besarkatzeko? Hauek dira ikuskizun honek jorratzen dituen galdera eta istorioak.

ANTZEZLANA

LEHEN HAUSNARKETA ARTISTIKOAK

Antzezlan honekin espazioaren nahasmena landu dugu. Drogaren mundu ilegal eta narkotiko ilunak eskatzen digu nahasmenera eramatea ikuslea. Diskoteka klandestinoetan erabiltzen den argi itsugarria eta musika elektronikoa ditugu bidelagun. Dantza erritualizatu batek eramaten gaitu mundu batetik bestera. Ikerketatik familiara, errealitatetik droga deliriora, herritik politikara. Road movie euskaldun bat.

IDAZKERA

Errautsak eta Francoren Bilobari Gutuna antzezlanekin egin genuen bezala, Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin idatzi dugu obra hau. Idazkera oholtzatik eta gure ikerketa propiotik abiatu genuen bi estilo kontrajarri lantzeko:

- idazkera prosaiko edo arrunt bat ikerketa eramateko eta kezka arruntenak agertzeko
- idazkera estilizatu sakratuago bat ondoezen eta bizipenen bidaia adierazteko


METODOLOGIA

Ikuskizun honen helburuetariko bat gazteria hunkitzea da. Horregatik, gaiari dagokionez oso zehatzak eta dokumentatuak izaten ahalegindu gara. Fikzioaren indarrean sinistu arren, uste dugu beharrezkoa dela dokumentazio zabala eta adituen babes ezinbestekoa. Kazetari lanak aztertu ditugu, Euskal Herriko droga literaturaz jabetu gara, eta mediku espezializatuekin lan berezi bat ere eraman dugu. Francoren Bilobari Gutunarekin bezala, webgune dokumentatu bat martxan jarri dugu gure informazio iturri eta dokumentu guztiak partekatzeko.

ANTZEZLANA

DENBORA-ESPAZIOA

Aktoreen gorputzek, mugimenduek eta egoerek ezaugarritzen dute espazioa, ikusleak eurekin batera eramanez, beste baliabide eszenografikoekin batera. Gure saiakera eszenikoek eraman digute ispilu joko batera, nortasunaren aniztasuna agerian uzteko.



ANTZEZLANA

BEHAR TEKNIKOAK

Zaldi Urdina sorkuntza prozesuan dagoen antzezlana da. Hori dela eta, rider teknikorik oraindik ez dugu, baina azpian zerrendatuta doaz momentuan aurreikusten ditugun baldintza gutxiengoak.

ESPAZIO ESZENIKOAK

Hauek dira, momentuan aurreikusten dugunez, *Zaldi Urdina* eskaintzeko oholtzak izan beharreko neurri txikienak:

a) Antzokian

Altuera: 4,5m

Zabalera: 8m

Sakonera: 7m

b) Frontoian (edo gisako espazioetan)

Kasu honetan, taldeak eraman eta montatu dezake "kaja beltza" sortzeko beharrezko material teknikoa. Gastu gehigarri bat izango litzake.

MATERIAL TEKNIKOA

Ekipazio teknikoa duten espazioetan, aretoko eta konpainiako materiala erabiliko da, teknikoki arina izan dadin denontzat. Emanaldi asko aurreikusten ditugunez, fitxa tekniko egingarri eta nahiko moldagarri bat prestatuko dugu, gure ikuskizuna espazio eta publiko guztiari helarazteko.

Hala ere, beharrezkoa den kasuetan, ikuskizun honetan erabiliko den material tekniko guztia eramateko aukera izango du taldeak, baina gastu gehigarri bat izan lezake.

ANTZEZLANA

MONTAJEA

- a) Emanaldi bakarra denean
Emanaldi egunean bertan, goizetik hasiko da montajea, gutxienez ikuskizuna hasi baino hamar ordu lehenago.

- b) Egun berean bi emanaldi daudenean
(bat goizean eta beste bat arratsaldean)
Montajea bezperan egingo da, goizetik.

ARDURADUN TEKNIKOA

Aitz Amibilia
aitz.teknik@gmail.com
+33(0)6.03.53.45.18

MEDIAZIOAK

Antzerkia eta hezkuntza: bi mundu. Elkarren osagarri diren bi mundu.

Haurtzarokoa, nerabegarokoa eta gaztarokoa garai berezia da, norbanakoak nor diren eta nor izan nahi duten adierazteko garaia. Eta ikuspegi horretatik antzerkia bitarteko ideala da.

Ez dizkiogu ikusle gazteari antzerki obrak ikusteko aukerak eskaintzen pertsona gisa "hezteko", ezta ikusle "on" bilakatzeko ere. Gure benetako eginbeharra, "kalitatezko" obra batek eskaini ditzakeen plazer, emozio eta gogoetak bideratzea da. Bere baitako begirada eta bide batez inguratzen duen munduarekiko duen begiradari buruzko hausnarketa egin dezan. Etorkizuna eraiki behar da eta behar dituzten tresnak eskaini behar zaizkie. Jokoa da gure eremua, plazerra, horrek indarra emango dio, eta are gehiago euskaraz eginez. Orduan gure hizkuntzari balio erantsi bat emango diogu. Euskaraz egiten duguna, euskaraz soilik egin dezakegu. Sormen esparrua berriz asmatzeko aukera irekia da, eta paradaz jabetu behar dugu: idazkera, irudimena, gorputza, elkarbizitza. Horrek animaziotik urruntzen gaitu, sormen partekatutik hurbiltzeko, artearekiko lotura afektiboa gauzatzeko aukera eskainiz.

Ikastetxeekin lehen lotura, herriko antolatzaileek egitea behar genuke, "Zaldi Urdina" aurkeztea eta jabetu araztea haien ikastegiko urteko planteamenduan artea txertatzeak duen garrantzia eta indarrak. Eta hortik aurrera, guk hartuko genuke erreleboa. Izan ere, epe luzean ikusteko emaitza onen bidea hau dela sinetsita, indar gehiagok heldu diogu adar honi, eta lankide berri bat sartu dugu lantaldean, ehuneko ehunetan honetara dedikaturik.

"Zaldi Urdina" ikuskizunarekin batera webgune berezitu bat sortu nahi dugu, eta bertan gure antzezlanaren sorkuntzaren ikerketa prozesuan esanguratsuak izan diren hainbat materialak eskegi: artikuluak, filmak, argazkiak... Webgune horretako materialarekin landu litezkeen gaiak zerrendatu eta moduak proposatzeko, gida pedagogiko bat osatuko dugu. Honen helburua litzateke, hau eskura izanik, irakasleek autonomiaz eta emanaldia aurretik drogen gaia eta arteak egunerokotasunean duen

MEDIAZIOAK

garrantzia jorratu ahal izatea ikastetxean (gure lankideak erreminta honen erabilpena bideratzen laguntzeko prestutasuna izango du interesa duten irakasleekin).

Hain gurea den material honetaz gain, beste hiru interbentzio posible ere jarri nahi genituzke ikastetxean eskura:

- .- Ai Laket taldearen (droga erabiltzaileen arrisku murrizketarako elkarte) hitzaldi bat.
- .- Justo Arriola "A los pies de caballo" erabat ezinbestekoa izan zaigun liburuaren idazlearen hitzaldi bat.
- .- "Zaldi Urdina" lantaldeko sortzaile batekin ikasleentzat antzerki tailer txiki bat ikastetxean bertan.

Bide honen azken helmuga, ikuskizuna ikustea litzateke. Gazteak antzerkiarekin buruz buru jarri nahi dituen dinamika berri baten atarian gaude. Ikasgelan bertan, ikastetxean bertan eta antzokietan ere bai. Hiru espazio horiek sinbolikoak direlako, gazteek beharrezkoak dituzten transmisio guneak.

LAN TALDEA

Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin idatzia

Zuzendaritza: Ximun Fuchs

Zuzendari laguntzailea: Ainara Gurrutxaga

Aktoreak: Ander Lipus
Manex Fuchs
Urko Redondo
Miren Alcala
Oier Zuñiga
Edurne Azkarate
Olatz Beobide

Argiztapena: Josep Duhau

Koreografia: Philippe Ducou

Musika: Asier Ituarte

Teknika: Aitz Amilibia




Irudia: Oier Zuñiga

Media: Roberto Quintana

Ekoizpena: Iasone Parada

Banaketa: Irantzu Azpeitia

Mediazioa: Arantxa Hirigoyen



LAN TALDEA

Euskal antzerkiaren altzoan.

Badira urte batzuk Euskal Herriko hiru lurraldetako hiru antzerki talde elkartu ginela, Artedrama (Bizkaia), orain AXUT! bilakatu den Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa). Batasun honek euskal teatroari beste hauspo bat ekarri dio, euskarazko teatroari. Gutxika-gutxika antzokietara publiko berria erakarri dugu eta lanketa horretan jarraitu nahi genuke. Ahalegina egingo dugu ZALDI URDINA lana ahalik eta Euskal Herriko antzoki gehienetan emateko ere.

Elkarrekin sortu genituen:

<p>ERRAUTSAK Estreinaldia: 2010-XI-01 Emanaldi kopurua: 45</p> 	<p>Zuzendaria: Ximun Fuchs</p> <p>Aktoreak: Ander Lipus Manex Fuchs Ximun Fuchs Miren Gaztañaga Ainarra Gurrutxaga Urko Redondo</p>
<p>HAMLET Estreinaldia: 2013-XI-01 Emanaldi kopurua: 45</p> 	<p>Zuzendaria: Ximun Fuchs</p> <p>Aktoreak: Ander Lipus Manex Fuchs Iñaki Ziarrusta Miren Tirapu Ainarra Gurrutxaga Urko Redondo Maika Etxekopar</p>
<p>FRANCOREN BILOBARI GUTUNA Estreinaldia: 2016- XI-01 Emanaldi kopurua: 60</p> 	<p>Zuzendaria: Ximun Fuchs</p> <p>Aktoreak: Ander Lipus Patricia Urrutia Manex Fuchs Zoila Berastegi Urko R. Pescador Pako Revueltas Erika Olaizola</p>

EGUTEGIA**2019**

- 2019/10/11 Luhuso - Harri Xuri 20.30
2019/10/14 Angelu - Quintaou Antzokia 14.30
2019/10/15 Angelu - Quintaou Antzokia 14.30 - 20.30
2019/10/16 Angelu - Quintaou Antzokia 15.00 - 20.30
2019/10/17 Angelu - Quintaou Antzokia 14.30
2019/10/18 Angelu - Quintaou Antzokia 20.30
2019/10/19 Angelu - Quintaou Antzokia 20.30
2019/10/23 Donostia - Gazteszena 20.00
2019/10/24 Donostia - Gazteszena 11.00 - 20.00
2019/10/25 Donostia - Gazteszena 11.00 - 20.00
2019/10/26 Donostia - Gazteszena 20.00
2019/10/27 Donostia - Gazteszena 20.00
- 2019/11/01 Azpeitia - Soreasu Antzokia 21.30
2019/11/06 Bilbo - Arriaga Antzokia 11.00
2019/11/07 Bilbo - Arriaga Antzokia 11.00 - 19.30
2019/11/09 Barakaldo Antzokia 20.30
2019/11/12 Hernani - Biteri K.E. 11.00 - 20.00
2019/11/13 Iruñea - Gayarre Antzokia 20.00
2019/11/14 Iruñea - Gayarre Antzokia 11.00 - 20.00
2019/11/15 Oñati - Santa Ana Antzokia 22.30
2019/11/17 Errenteria - Niessen Kulturgunea 19.00
2019/11/19 Gasteiz - Principal Antzokia 20.30
2019/11/23 Larresoro - Kultur Gela 20.30
2019/11/03 Markina Xemein - Frontoia 22.00
- 2019/12/101 Sopela - Kurtzio K.E. 20.00
2019/12/12 Hendaia - Mendi Zolan 14.30
2019/12/13 Hendaia - Mendi Zolan 14.30 - 20.30
2019/12/120 Manuel Lekuona Antzokia - Lasarte-Oria 19.00

EGUTEGIA**2020**

2020/01/10 Zarautz – Modelo Aretoa 22.00
2020/01/12 Arrasate – Amaia Antzokia 19.30
2020/01/17 Azkoitia – Baztartxo Antzokia 11.00 - 21.30
2020/01/18 Legazpi – Antzokia - 21.30
2020/01/24 Elorrio – Arriola Antzokia 20.00
2020/01/25 Durango – San Agustin Kulturg. 20.00
2020/01/26 Ataun – Herri Antzokia 19.00
2020/01/31 Galdakao – Torrezabal K.E. 21.00

2020/02/01 Berriz – Kultur Etxea 20.00
2020/02/02 Basauri – Social Antzokia 12.00 - 20.30
2020/02/14 Zumaia – Aita Mari Antzokia 12.00 - 22.00
2020/02/15 Andoain – Bastero Kulturgunea 19.00
2020/02/16 Villabona – Gurea Antzokia 19.30
2020/02/21 Donapaleu – Sant Louis Gela 14.30-20.30
2020/02/27 Santurtzi – Serantes Kultur Aretoa 20.30
2020/02/28 Arrigorriaga – Lonbo Aretoa 20.00
2020/02/29 Zornotza Aretoa 20.15

2020/03/13 Elgoibar – Herriko Antzokia 20.30
2020/03/14 Soraluze – Antzokia 20.00
2020/03/17 Eibar – Coliseo Antzokia 20.30
2020/03/20 Tolosa – Leidor Antzokia 20.30
2020/03/26 Hazparne - Mendeala 10.00-14.15

2020/04/03 Kultur Leioa 22.00
2020/04/18 Aulesti – Frontoia 22.00

2020/05/15 Ermua – Antzokia 22.15

KONTAKTUA

ArteDrama

Irantzu Azpeitia

(0034) 615 779 511

info@artedrama.com

AX
UT!

arte
eszenikoan
plataforma
Arte
Drama

D E j A B U